

EUSKARA I: ZIENTZIA ETA TEKNIKARAKO EUSKARA

Datu orokorrak



Seihilekoa: **S1**

Hizkuntza: **Euskara**

Formatua: **On line Eskolak**

Deskribapena



Helburua da euskaraz txukun idaztea, bereziki testu zientifiko-teknikoak. Interneten eskuragarri dagoen ikasmateriala erabiliko dugu, eta, besteak beste, gai hauek jorratuko ditugu: puntuazio-ikurren erabilera, morfosintaxia, ortotipografia, Zientzia eta Teknikako euskara, eta kalko okerrak.

Metodologia



Saio bakoitzean aldizkari bateko testu zientifiko-tekniko bat irakurriko duzue, baita pildora teoriko batzuk ere, eta hainbat galdetegi osatuko dituzue ikusitakoak lantzeko.

Zenbait bideoren euskarazko laburpenak egingo dituzue.

Ikasgaiaren nota eginiko lan guztietako emaitzen batezbesteko ponderatu bat izango da.

Edukiak



- **1 Gaia:** Euskara egokia idazteko erremintak.
- **2 Gaia:** Puntuazioa egokiro erabiltzeko gida.
- **3 Gaia:** Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak.
- **4 Gaia:** Ortotipografia.
- **5 gaia:** Zientzia eta teknikako euskara arautzeko gomendioak.